

## ZERGATIK UDALAK PARTE HARTU AKTIBOKI ENERGIA-KOMUNITATEAN?

Jarraian datorren zerrendak jasotzen ditu udal batek bere herrian sortu den energia-komunitateko bazkide izateko arrazoiak.

1. Krisi klimatikoaren aurkako borrokan lagunduko duelako.
  - CO<sub>2</sub> isuriak murrizten lagunduko duelako.
  - Erregai fosilen kontsumoa murrizten lagunduko duelako.
2. Energia-komunitateak, trantsizio energetikoaren baitan, krisi klimatikoari aurre egiteko aukera ematen duelako.
  - Sorkuntza berriztagarria, mugikortasun jasangarria edo energia kontsumo murrizketa landu ditzakeelako
3. Energia eredu berria delako, demokratikoagoa.
  - Europar Batasuneko 2018/2001 eta 2019/944 zuzentarauetan adierazten den moduan, herritarra eredu energetikoaren erdian jartzen duelako.
4. Erabakiak tokian tokiko beharren arabera hartuko direlako.
  - Tokiko kooperatibak sortuko direlako eta bertako gobernantza izango dutelako.
5. Burujabetza energetikoan aurrerapausoa delako.
  - Oligopolioarekiko menpekotasuna gutxitzen duelako.
6. Herritarrak trantsizio energetikoan inplikatzeko bide bat delako.
  - Berriztagarriak erabiliz.
  - Kontsumoa murriztuz.
  - Energia komunitateen baitan sor daitezkeen bestelako ekintzak sustatuz.
7. Energia berriztagarrien instalazioak egikarrituko dituelako.
  - Energia komunitateen lehen urratsak proiektu fotovoltaikoak izaten ari direlako
8. Dependentsia energetikoari aurre egiteko bidean ekarpenak egin ditzakeelako.
  - Orokorrak, gizarte guztiarentzat.
  - Udaleko gizarte zerbitzuekin elkarlanean egoera zaugarrian daudenezako.
9. Tokiko ekonomia hobetzen duelako.
  - Kalitatezko enplegua sortu dezakeelako (instaladoreak, gremioak...).
  - Enpresen lehiakortasunean efektu positiboa izan dezakeelako.
10. Herriko egitura sendotu eta erresilientzia hobetzen dituelako.
  - Tokiko gizarte sistemak sortzen dituelako.

11. Herriko proiektua konplexua izanik udalaren parte hartzea lagungarri delako.
  - Egitasmoari bermea eta zilegitasuna eskaintzen dielako.
  - Energia-komunitatea sortzeko behar diren tramiteetan laguntza tekniko eta operatiboa eskaini dezakeelako.
  - Dagoeneko sortuta dagoen energia-komunitate batek behar dituen azpiegitura eta baliabide fisikoak eskaintzeko erraztasunak eman dakizkiolako (bilera gelak, proiektoreak...).
12. Trantsizio energetikoaren helburuak lortzeko udala eta energia-komunitatea lerrokatuta joan behar direlako.
  - Herriko energia estrategia bermatzeko eta lerrokatzeko.
  - Herrian sortu daitezkeen inizatiba/eredu ezberdinak koordinatzeko.
13. Udala eta herritarrak gerturatzeko aukera delako.
  - Herriko proiektuan elkarlanean aritzeko.
14. Energia-komunitateak trantsizio justua sustatzen duela bermatzeko.
  - Pobrezia energetikoaren aldagaia kontuan har dadin bermatzeko.
  - Gizarte zerbitzuen laguntza ezinbestekoa izanik, egoki jokatzen dela bermatzeko.
15. Udalak dituen lege betebeharrei erantzuten laguntzen duelako.
  - 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
  - 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
16. Udalaren faktura energetikoa murizten lagunduko duelako.
  - Bazkide erabiltzaile bada autokontsumitzen duen energia kopurua merkatu baldintzetatik ateratzen delako.